



Euskarazko terminologia zientifiko-teknikoa testu akademikoetan

ECTS kopurua

3

MODALITATEA

Aurrez aurrekoa edo online sinkronoa

12 ordu aurrez aurrekoa edo sinkronoa (apirilak 13, 15, 20, 23, 27 eta 30) eta 18 ordu asinkrono

Aurrez aurreko eta onlineko tutoretzak

EGUTEGIA

2026-04-13/2026-07-24

IRAKASLEAK

Igone Zabala
Izaskun Aldezabal
M^a Jesus Aranzabe

IKASTAROAREN EDUKIA

Terminoak testu espezializatuen hezurdura dira, espezialitate-alor bateko adituen diskurtso-komunitateak partekatutako kontzeptu espezializatuak enkapsulatzeko erabiltzen diren izen-kategoriako unitate lexikoak baitira. Termino batzuk hitz bakarreko unitate bakunak izaten dira baina, kontzeptuak konplexuago egiten diren heinean, terminoen egitura eta semantika ere konplexuago egiten da. Hori dela, eta termino asko hitz bakarreko unitate konplexuak (hitz eratorriak edo hitz elkartuak) edo hitz anitzeko unitateak (termino sintagmatikoak) izaten dira. Testu akademiko egokiak idazteari begira, garrantzitsua da terminoen egitura aztertzeo gauza izatea eta euskarak dituen termino-sorkuntzarako mekanismoak ezagutzea. Izan ere, hiztegi eta terminologia-datubase espezializatuetan, askotan ez dugu aurkitzen behar dugun terminoa bere horretan, baizik eta horren osagaien bat edota antzeko paradigmako beste termino bat. Horrelakoetan, gauza izan behar dugu kontsulta-baliabideetan lortutako informaziotik abiatuta, behar dugun terminoa osatzeko. Beste kasu batzuetan, aldiz, termino beraren hainbat aldaki aurkitzen ditugu kontsulta-baliabideetan, eta horiek kritikoki aztertzeo eta alderatzeko gauza izan behar dugu, gure diskurtsorako aldaki egokiena(k) hautatu ahal izateko. Azkenik, zenbaitetan beste hizkuntza batean identifikatu dugun terminorako euskal ordainik ez dugu aurkituko kontsulta-baliabideetan eta, beraz, guk geuk sortu beharko dugu terminoa euskararen sorkuntza-mekanismoak erabiliz. Gainera, ezaguna da diskurtso akademikoak garatzeko nahitaezkoa izaten dela terminoak eraikitzea eta deseraikitzea, diskurtsoaren eskakizunetara egokitzen joateko. Hortaz, ikastaro honetan, hasteko, edozein testu akademiko ekoizteko nahitaezkoak diren terminoak egituraren, jatorriaren eta semantikaren arabera aztertzen ikasiko dugu. Bigarrenik, euskararen hiztegi-sorkuntzarako bideak azaldu, eta horiek erabiltzen trebatuko gara. Azkenik, hiztegi, terminologia-datubase eta testu-corpus espezializatuak erabiltzen trebatuko gara, gure testuetan terminologia-aldakortasuna kudeatzen ikasteari begira. Hauek dira jorratuko diren gaiak:



1. Terminoen definizioa eta egituraren arabera sailkapena
2. Termino-sorkuntzarako bideak
3. Hizkuntza-ukipena eta mailegutza
4. Eratorpena eta prozesu mugakideak
5. Hitz-elkarketa
6. Termino sintagmatikoak
7. Terminologia-aldakortasuna ondo garatutako hizkuntzetan eta normalizazio bidean dauden hizkuntzetan
8. Terminoak testuetan: terminoak designazio-paradigma modura
9. Hiztegi, terminologia-datubase eta testu-corpus espezializatuen erabilera kritikoa, terminologia-aldakortasuna kudeatzeari begira

IRAKASKUNTZA-HELBURUAK

- Terminoak identifikatzea testu akademikoetan.
- Terminoak egituraren eta jatorriaren arabera sailkatzea.
- Maileguak eta kalkoak bereiztea.
- Maileguen grafia eta ahoskera egokitzeko erregelak ezagutzea.
- Laburtzapenen sailkapenaren ezagutzatik abiatuta, diskurtsoan txertatzeko deklinabidea eta arau ortotipografikoak egokiro erabiltzea.
- Hitz eratorriak, hitz elkartuak eta erdibidean daudenak bereiztea.
- Euskal hitz eratorriak sortzeko erregelen ezagutzatik abiatuta, diskurtsoaren beharretarako egokiak diren eratorriak hautatzea.
- Hitz elkartuak diren terminoak eta termino sintagmatikoak bereiztea.
- Euskal hitz elkartu motak bereiztea, eta motaren arabera arau ortotipografikoak egokiro erabiltzea.
- Erdal adjektiboen euskal ordainak egokiro hautatzea.
- Termino sintagmatikoen egitura eta semantikaren azterketatik abiatuta, egitura zuzeneko terminoak eraikitzea

EBALUAZIORAKO METODOLOGIA

Ikastaroan hainbat material mota jarriko dira ikasleen eskura (txostenak, artikulak, bideoak...). Ikasleek material horiek landu beharko dituzte ezarritako epean, eta edukiak hobeto ulertzeko eta aplikatzeko ikastaroan bertan jarriko diren autozuzendutako galdetegiak egin beharko dituzte nahitaez. Horretaz gain, haien doktorego-tesian erabili behar dituzten termino nagusiak erauzi, aztertu eta definiziodun terminologia-hiztegi eleaniztuna egingo dute. Egindako hiztegia TZOSen (Terminologia Zerbitzurako Online Sistema) kontsultagai jarriko da. Horrela, ekarpen handia egingo diote ikasleek euskal komunitate akademikoari. Zalantzak argitzeko, foro bat ere edukiko dute eskura. Horretaz gain, gutxienez aurrez aurreko tutoretza bat eskatu behar dute ikasleek.

Azken ebaluazioa bi tresnatan oinarrituko da:

- a) Galdera teorikoak eta praktikoak izango dituen galdetegi bat.
- b) Doktorego-tesian erabilitako terminologia biltzen duen definiziodun hiztegi eleaniztuna, TZOSen kargatzeko egokituta.



EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

- Ebaluazio-galdetegiko galdera teorikoak eta Interneteko kontsulta-baliabideekin lotutako galderak egokiro erantzutea. % 5
- Ebaluazio-galdetegian, maileguak eta kalko semantikoak bereiztea. %5
- Ebaluazio-galdetegian, laburtzapenen deklinabide eta ortotipografia egokiak identifikatzea. %5
- Ebaluazio-galdetegian, hitz eratorriak, hitz elkartuak eta erdibidekoak bereiztea, eta idazkera egokia hautatzea. % 5
- Ebaluazio-galdetegian, mota desberdinetako hitz elkartuak eta termino sintagmatikoak bereiztea, eta idazkera egokiak identifikatzea. % 10
- Ebaluazio-galdetegian, adjektibo motak eta egokiro osatutako termino sintagmatikoak identifikatzea. % 10
- Norberaren tesian erabilitako terminoak identifikatzea, eta aztertzea egituraren, jatorriaren eta erabileraren arabera. % 30
- Norberak tesian erabilitako definiziodun hiztegi eleaniztuna osatzea, TZOSen kargatzeko egokituta. % 30